

ELIZBARRUTIKO MISIOAK: 50 URTEZ BIDEAN AURRERA

1998. urtean betetzen dira Elizbarrutietako Misioen hasieraren 50 urte. Aldi honetan gure parrokitako ehundaka kristau joan dira Erromako Elizak Bilbo, Donostia eta Gasteizko elizbarrutien esku utzitako lurraldeetara ebanjelioaren testigantza emateko beste herri eta kultura batzuen artean.

Hau dugu jaia, hau: urrezko ezteiak. Atzera begiratzeko irrikak sortzen dira. Pentsa ezazue Angola, Ruanda, Zaire (gaurko Congo-Kinshasa), Chile, Brasil, Venezuela edota Ecuadorko hainbeste herrirekin ezarri ditugun lokarrietan. Milaka historio, ipuin, anekdota datozkigu burura, bihotzera. Ehundaka lagunen aurpegiak, ahotsak.

Mentura batez ari gatzazue, mentura zoragarri batez: behin baten, orain urte asko, ebanjelioaren iragarpenak bultzatuta, elizbarruti batek bere lurraldetasuna erlatibizatzea erabaki zuen. Eliz guztiarentzat berri on bat delakoan gaude: hator gurekin, beraz, historia honi buruz zerbait ezagutzera.

Historia apur bat

Baina apur bat baino ez, eh?, doi-doi orainaldia ulertzeko eta gerora elkarrekin begiratzeko beharrezko dugun apurra.

1948. urrira goaz. Gure aurrean zortzi abade gazte ditugu Los Ríosera (Ecuadorrera) joateko prest. Zertara, baina? Misioe-



tara, sinismengabedunentzat berri ona izatera, Kristoren Eliza hedatzera, arimak salbatzera. Lehen espedizio hau aspaldiko amets baten gailurra izan zen: misio katolikoak indartzeko elizbarrutiko apezteriaren erakuntza eta Erromako Elizarengandik misioa aurrera eramateko lurralde baten lorpena. Bukatze-ar dagoen gizaldi honetako lehen hamarkadetan, Aita Santuek zenbaitetan adierazi zuten misioak indartzeko beharra: protestanteak orain "Hirugarren Mundu" bezala ezagutzen dugun hainbat lekuetan finkatuz zihoazen beraien elizak eta obrak, eta eurak bezain adoretzu ez izatearen kezka bazegoen. Beste alde batetik, mundu guztiko herriak jentiltasunetik salbatzeko premia biziki sentitzen zen. Gainera, mundua gero eta ezagunagoa zen: antropologia eta gizarte zientziak pausuz pausu hazten zihoazen, eta bai guretzat ziren herri berrietan, bai betiko herri jentiletan (Chinan, esate baterako) berri ona iragartera joateko prest zeudenak beharrezkoak ziren.



Ezin ahaztu aldi haietan Eliza ezartzeko gai ziren bakarrak, ordea, erlijiosoak zirela. Zelan, ba, lortu baimena elizbarrutiko abade misiolari izateko inongo instituto edota aparteko erakundeetan sartu gabe? Baimena lortu zen, bai, baina urteak eta lan asko pasatu behar izan ziren baietza heldu arte. Esana dagoenez, 1948. urtean Erromak orduko Gasteizko elizbarrutiari (geroxeago gaur ezagunak ditugun Bilbo, Donostia eta Gasteizko elizbarrutietan zatitua izandakoa) Los Ríoseko misioa eman zion. Bete zen, ba, ametsa.


Zortzi abadeak laguntzeko laster sekular batzuk hurbildu zitzaizkien. Denetarik zekiten gizon hauek: bai katekesia ematen, bai janaria prestatzen, bai kotxea konpontzen, bai eliz bat eraikitzen. Eta zer esan behar joan ziren lehen emakumez? Misiolari sekularrak ere: aldi berean erizainak, emaginak, irakasleak eta katekistak ziren. Elkarrekin tenpluak, eskolak eta eritegiak eraiki zituzten. Estrukturak, egonkortasuna, jarraitzeko ahalbideak sortu zituzten.

Entzutekoak dira (dagoeneko, irakurtzekoak direla esatea egokiagoa da) haien lehen inpresioak: beroari eta beroak eta

hezetasunak dakartenari buruz, jende eta ohitura berrietaz. Egia da lehendabizi misiolariak dezepzio txo bat sentitu zutela, Los Ríos-en bazegoelako Eliza, lehen asmoa Eliza gabeko leku batera joatea zelarik. Baina sentimendu hori alde batera utzirik, Vines, Ricaurte, Catarama, Palenque, Mocache, Baba, Babahoyo, Quevedo edota Ventanas deitutako herri haietan denetarik egin behar zela nabarmena zen.

Baserri giroko lehen gizon-emakume haientzat ez zen berri handirik izan zaldi zein mandoetan jendeen bizilekuetara joan eta etorri beharra. Agian beste gauza bat izan zen negu aldian (ia-ia sei hilabeteko negu bero eta heze haietan) ibaiak, ibai emari eta zabal haiek (haiengandik datorkio probintziari izena, Los Ríos) ibiltzeko zegoen bide bakarra zirela aurkitzea.

Eta zer pasatzen zen hemen gelditu zirenen artean? Misio adorea sendo zegoela, bai horixe: Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako edozein parrokiatan tonbolak eta kolektak antolatzen zi-



ren irabazitako diruaz misioei laguntza bidaltzeko. Eta ugaria-
goak ziren oraindik misioen aldeko otoitzak.

Ugaldu egin ziren elizbarrutiko misioak: garai haietan semi-
narioak bete-beterik zeuden eta misio zerroa maitekiro lantzen
zen; eta parroketan gauza bera pasatzen zen taldeetako kidee-
kin. Urteak aurrera joan ziren. Misiorako lurraldeak gehituz jo-
an ziren: Los Ríosetik, Ecuadorren bertan, Bolívar, Tungu-
rahua, Guayas, El Oro eta Manabiko probintzietara hedatu zi-
ren. Hortik kanpo, elizbarrutiko misioak Chile, Venezuela,
Brasil, Zaire, Ruanda eta Angolaraino heldu ziren.

Beste hamarkada batera ailegatzen gara, 1960-70 urteetara.
Erdi-erdian Vaticano II. dugu, Eliz bizitza irauli zuen Kon-
tzilioa. Ordutik datoz gaurko Elizaren aurpegi berriaren ezau-
garriak: munduarekin bildurgabeko harreman hestu eta sakona
eduki nahi duen komunitatea, Jainkoaren Herria. Pastoral
ekintza gako berrietan sustraituko da: politika, gizartea eta
ekonomia salbamen lekuak dira, Jaungoikoaren Espirituaren





urratsak Historian zehar argiago somatzen dira. Eta jentilengana-
nako harremanak ere buruz bera jartzen dira: Elizak pozez
aurkitzen ditu Jainkozko Hitzaren haziak sortutako guztian,
kultura guztietan.

Ordutik aurrera gorputza eta arimaren salbamena gauza be-
ra izango da, pertsona osoaren salbamena, alegia.

Badirudi Kontzilioa sormen handienez jaso zuten Eleizak
pobretutako herrietakoak (Eleiza gazteenak, beste alde batetik)
izan zirela. Gauzak horrela, Medellinen, Mexicon, 1968.eko
Ameriketako gotzainen batzarrean hauxe da argi ikusten dena:
Eliz artzainak inolako bildurrik gabe gizarte zientzietara hurbil-
tzen direla heraien herrien egoerari opresio izena jartzeko. Ge-
ro, egoera hori ahots profetikoarekin salatu egiten dute eta
pastoral ekintza ausartak planteiatzeko garaia heldua dela esa-
nez itzultzen dira euren elizbarrutietara. Elizaren lehen garaia,
lehen komunitateen garaia, ispilu preziatua bilakatzen da. Hu-
ra da txiroen aldeko aukeraren garaia, latinoamerikar Elizak
Eliza unibertsalari egin dion funtsezko ekarpena.

Gure elizbarrutietako misiolariak murgildu egiten dira giro honetan, bai Amerikan eta bai Afrikan. Alde batetik, laikoak euren Eleizarekiko papera aldatuz doaz, kontzientzia eta adoretasun haudiagoaz ikusten baitituzte euren buruak, Eliza zein gizarte eraikuntzan. Beste alde batetik eragintza hitza indartsuki agertzen da pastoral hiztegian. Gako berria: arrainak emateari utzi arrantzan irakasteko. Jadanik 1970-80 urteetan gaude, heziketa profesionalaren urteetan. Misioari kooperatibak indartzeari ekiten diete. Eta Paulo Freireren korrantean sartzen dira, pedagogia oprimituen alde jarriz. Inkulturazioaren beharra sortzen da, kristau mezuari mendebaldetar jantzia kentzeko beste kulturak erraizetik berea egin dezaten. Oinarrizko eleiztar komunitateak indarrez sortzen dira, Jaungoikoaren Esana txirotuen eskuetan jartzeko eta pobreak kristinau duintasun osoz bizitzeko. Urte irakikorrak, haiek. Elizbarrutiko misiolariak argitasunez egin zuten euren lana. Eta egia osoa esateko, zenbait itzal ere eragin zuten herritasunetan sakontzerakoan.

Dena dela, historia labur bati buruz hitz egin dugu hasieran, eta hau luzatuz doa. Beraz, bukatzeko, esan dezakeguna da hemen, gure artean, gure hemengo elizbarrutietan, lehenengo garaietako bero hura poliki-poliki epelduz joan zela. Zergatiak ugariak eta, seguraski, konplikatua dira. Egia dena da misio giroa gutxituz joan zela: azkenean elizbarrutiko misioetan hurbilezko norbait daukatenez edota esperientziak eraginda nolabaiteko lotura daukatenez dihardutela arlo honetan.

Eta gaur, zer?

Lehen garaietako ugaritasuna urteekin murriztuz joan zen. Eta, esana dagoenez, zenbait zergatiengatik, lurralde batzuk utzi behar izan ziren: Venezuela, Chile eta Brasil Amerikan. Zaire Afrikan. Gaur, beraz, Angola, Ruanda eta Ecuadorren gaude. Gure misiolariak, gehienbaten, parroketan egiten dute lan. Abadeak, erlijiosoak eta laikoak daude, eta indar berezia egiten dute komunitate txikien eraikuntzan, helduen katekesian eta beste arlo batzuetan: emakumearen eragintzan, giza

eskubideetan, nekazaritza integralean sendabide naturalean. Unibertsitatean, ahalmen gutxientzako eskoletan eta seminarioetan dihardue ere.

Misioetatik, Hirugarren Mundutik datorkizkigun oihatzunak esaten digutena zera da: txiroen eta aberatsen arteko horzka-



da, beti izan dena, neuririk gabe handituz doala. On Pedro Casaldáligak Ordua, utopientzat lekurik ez dagoela, norberaren zoriontasuna baino ez dela posible esaten digun neoliberal garai hori, pisutsuegia egiten zaigula arrazoi osoz esaten du.

Hona hemen Angola, hogeí urteko gerra zibil batetik irten nahiean. Errez imajina dezakegu gerra honek utzi dituen gorrotoak... eta pertsonen kontrako minak, lurretako bonbak. Erabiltzeke dauden lur sailak itzelak dira, eta horrek oso zail jartzen du geroari itxaropenez begiratzea.

Zer esan Ruandari buruz: 1994an tamalez famatua izan zen gatazka aurrera doala, nahiz eta orain komunikabideetan ezer agertu ez. Misiolariak esaten dutenez orain egin litekeen gauza bakarra egotea da, jendearekin jarraitu.

Eta Ecuador atzeraka dabil, guztiontzat ona eta justu den nazio bat eraikitzeke problema handiekin.

Hiru kasu hemen ditugunak; mundua honelako "kasuz" beterik dago. Zoritxarrez eta guztion lotsarako.

Gure misiolarien saialdia eta gogoia, egoera haietan, hauxe da: Jesusen Jaungoikoaren Eleza erakitzeari ekitea, elizbarruti haietan ezarriarik, herri haietan finkaturik. Hemen, gure artean, desafio ederra ere badugu: elizbarruti misiolaria izaten jarraitzea, munduko egoerak premiaz behar gaituela jakinik eta gero eta sartuago egonik Eleiz eraikuntzan.

Jaunaren deia, "Zoazte mundu zabalean zehar, eta gizaki guztiai Berri Ona iragarri iezaizue" inoiz baino ozenkiago dabil gure artean. Elizbarrutian esku dago zintzotasunez erantzutea. Mentua darraio: sar gaitezen bildur gabe.

Arantza Basagoiti